



Irudia:  
Kristina Fernandez

**M**ugalari jardun nahiko nuke, lagunok: eta zuok astebetetz Zuberoara eraman. Has nadin zakua josten! Lagun batek, orain ez asko, zera esan zidan: «Gure Euskal Herri honetan bazeudek gutxienez bi muga: bata hegoaldea iparraldearekin, baina bestea, Zuberoarekin!» Iaz, *xiberera* ezagutzeko aitzakian, Zuberoako AEK-k antolatzen duen udako barnetegira animatu nintzen. Zazpi egun: uztaillaren 29tik *agorrilaren* 4ra, astelehenetik *igantera*.

Motxilan hiru praka motz, bost niki, bi jertse, toalla sartuta eta zerbait ahaztuta atera nintzen etxetik uztaillaren 28an, igandea. Oskarbi zoragarria zen zerua!

Autoa martxan jarri, eta bidean hartu nituen: Unai, gasteiztarra; Manu barnetegira bosgarren aldiz zihoan ekonomialari bilbotarra; Maia, hendaia-rra, eta Leire, Baionako *bestetatik* ahotsa urraturik batu zitzaigun gazte bilbotarra. Ez nituen aurrez ezagutzen, baina autoko irratia ez zuen lanik izan Zuberoarako bidean!

Lehen jomuga Sohütan izan zen, Mauleren iparkialdean. “Renne Cassin” pastoralaren estreinako emanaldia eskainiko zen bertako zelaietan. Aitor-tzen dizuet inoiz ez nuela neure burua pastoral bat ikusten irudikatu, baina, behin hondartzara joanda, ezin uretan sartu gabe geratu! Uste nuenaren kontra, liburuxkarekin nahiko erraz jarraitu genuen ikus-



Aitor Lizarazu

## Xiberuko bozak

kizuna. Are gehiago, Renne Cassin-en bizitza, benetan interesgarria iruditu zitzaidan.

Amaitu zenean, bertan zerbait hartzea erabaki genuen. Pastoralak –gustatu ala ez–, urteko hitzordu dira Zuberoan; ezerk ez omen du urtean zehar horrenbeste jende biltzen, ezta errugbiak ere!

Lehen tragoak hartu bitartean, belarriak erne jarririk genituen. Harritu egin nintzen: zein euskara gutxi entzuten zen! Baten bat hurbildu zitzaigun gure “kanpotar” itxura antzemanda, eta *uskaraz* egin arren, gu agurtu orduko, frantsesera jauzi! Bitxia zen, ia hiru orduko ikuskizunaren ondoren!

Herri-afaria ere bazen, eta bertan afaltzea erabaki genuen. Ordurako eguzkia sartzen hasia zen, eta haizea aldatzen ere bai. Gure ondoan senar-emazte bi eseri ziren; gizonak txuri-berde-gorria zeraman soina. Frantsesez hasi zitzaizkigun, baina guk euskaraz erantzutean, kostata, baina euskaraz hasi zitzaigun emakumea. Lehen galdera, noski, *nonkuak* ginen. Guk hegoaldekoak ginela erantzun genion, eta Mendikotara etorriak ginela *xiberera* ikastera. Askok poztu zen emakumea hori entzutean, eta segituan adierazi zigun bere aita Ligits *kanthorea* zela, “Txapela edo Boneta” abesti ezagunaren egilea. Solasaldiak askorako eman zuen; Zuberoaren inguruko jakin-minez ginen! Eta, elkarrizketak hala eramanda, bere bi alabek ez zekitela euskararik adierazi zigun: «Ezen ene senarrak ez baitaki *uskararik!*». Ikurrina soinean zeraman gizonari erreparatu nion, hark irribarre batekin erantzun zidan. Harrigarria egin zitzaidan pentsatzea, emakumearen bi alabek ezin zezaketela aitonaren bertsorik ulertu. Are gehiago, bazirudien oharkabean gertatu zela euskararen etena etxe hartan. Karparen kanpoaldean zerua belzten hasi zen. Handik gutxira, pastorala eskaini zuten Sohutako gazteak hurbildu ziren guztien txalo artean. Ospakizunek iraun zuten bitarte ez nien ia euskararik entzun. Udako ekaitza lehertu zen gure gainean.

Orratzak zizt egin dit!

Ez ziren izan baina, *Xiberuko boz* bakarrak! Astelehena eguzkitsu esnatu zen, eta ikastaldian, hogeita hamar bat ikasle elkartu ginen, gehienak Mau-

leko Gaü eskolako ikasleak. Bost taldetan banatu gintuzten; gurean, Unai, Manu eta Leirez gain, Gerardo, idazle naparzialea; Didier paristarra; Erwan, erretiratutako matematikari bretoaia; Alain biarnarra, eta Laurance, Gasteizen bizi zen *xiberoarra* topatu ginen. Irakasleak bi: Maite ürrüstoitarra eta Otxanda barkoxtarra.

Ikasgelako saioez gain, hainbat irteera antolatu zituzten Zuberoa eta zuberotarrak hobeto ezagutzeko. Esaterako: Sohütako ikastolako zuzendariak, eskola, –gurasoen lanaz– nola eraiki eta kudeatzen zen kontatu zigun, baita Paristik zituzten oztopoak ere; Larraineko gainean Dominic Olaaso artzaintzaren eta esku-pilotaren inguruan aritu zen; Jean-Louis Davant pastoralgintzaren eta euskararen inguruan; Bettan Okhy laborari gaztea, Zuberoan horrenbesteko pisua duen lehen sektoreaz; Xiberuko Boza irratiak duen garrantziaz ohartu ginen, Artzenen ahotik; Maddi Oihenartekin bat-batean abestea zer den jakin genuen; Leony Olaasok herri elkargoaren lanaren berri eman zigun; Marise Espielek *gasna* egiten irakatsi... Baina, ez hori bakarrik, barnetegia eskolak baino askoz gehiago da: esketxak prestatu genituen, argazki muntaiak, Madalena gaineko probak, Uhaitzeko bainuak, afalosteko jokoak, Giome-n soinua eta Erwanen arpa, kantak, garagardoa, musa, Jeff, Bixente, Donestiko gazte-txea, Zigiko *bestak*... Guzti horiek ere badira *Xiberuko bozak*. Gehiago ere kontatu nahi nizkizueke, baina Mugalariak muga jarri dit!

Azken hari-mutur hau baliatu nahi nuke, orratzarekin muga zeharkatu eta Xiberuko Gaü-eskolako *guztier* –irakasle, ikasle eta boluntario– eskerrak emateko, bizipen horiengatik. Ederra izango litzateke orratza handik bueltan itzultzea, mugak zulatuz, herri hau josten jarraitzeko.

**Aitor Lizarazu Astigarraga** NOR DA

Ama donostiarra eta aita gabiriarra.

Zumarragako izatez, Aretxabaletan bizi da.